

# AMAIERATIK HASIERARA

Agur.

Bai. Honela hasten da nire gutuna. Gauza latz eta itsusietatik hasiko naiz, amaieratik, azkenean gauza politikak geratzeko.

Agur, bai. Atzean utziko dudalako zerbait, gutunaren amaierara arte, hau da, gauza politetara iritsi arte, idatziko ez dudana.

\* \* \*

Heriotza da, mundu honetan, dagoen gauzarik ilunena. Hain da iluna, gu hartu, berarekin eraman eta beragandik inoiz ihes egiten uzten ez baikaitu. Ni heriotzaren atean nago, horma zurizko ospitale bateko gela batean preso, ezin irten, ezin libre izan. Gibelego minbizia diagnostikatu zidaten pasa den udan. Erori egin nintzen. Nire tenplua eusten zuten zutabeak dardar egiten hasi ziren, guztiz erori gabe. Badakit duela bi egun sekulako tripako minez esnatu nintzenean, geratzen zaizkidan egunak zenbatuta zeudela.

Normalena heriotzaren beldur izatea da. Baina nik ez diot beldurrik, errespetua baizik. Heriotzan pentsatzean, errespetu ikaragarria sentitzen dut bularrean, itotzen nauena. Eztarran korapilo bat sortu eta arnasten uzten ez didana. Irentsi beharreko korapiloa. Ez dut bizia atzean utzi nahi. Baina ez diot beldurrik hiltzeari, han maite dudana jendea dudalako.

Inoiz ez dut ahaztuko Charles Chaplin artista handiak behin esandako hura: "Badago heriotza bezain nabaria dena, eta bizia da". Mundu honetan ezinezkoa den gauza bakarra dago eta hori betiko bizitzea da. Horren aurka borrokatu behar dugu, egunero gure bizitzetan presente dagoen hain faktore garrantzitsuaren aurka. Inork ez dio beldurrik heriotzari, ez haren ateetara hurbiltzen ez den bitartean. Inork ez du honen ateetan egon nahi, inork ez du bizia atzean utzi nahi. Horrek gure banakoaren existentziaren amaiera suposatzen baitu. Eta inork ez du hori nahi. Inork ez du denborak aurrera egiterik nahi. Baina denborak ez du beste egitekorik, aurrera egitea baino. Eta horretan gizakion antza du. Gizakiok ez dugu beste ezer egitekorik, hiltzea baino.

Desagertu nahi dugunean, norbaitek gure falta suma dezan nahi dugulako da, eta norbait horrek itzultzea eskatzea. Horregatik inork ez du hil nahi, inork ez duelako bakarrik egon nahi betikotasun guztirako, inork ez du nahi itzuli ezin izaterik. Eta horregatik, beti itzultzen gara, nahiz eta gura ez izan. Gauzen puntuan egotea dugu gustuko, arriskuaren bertigoak arima pizten digulako, suaren ondoan jokatzeak bizirik sentiarazten gaituelako. Oreka konstante bat bilatzen dugu, inoizaren hotzak betiaren

beroa bilatzera eramaten gaituelako. Eta horrela doakigu bizia, zerbait izatea espero duen denaren eta ezeren artean. Bizitzako hutsuneak asmatzen ditugu, existitzen denari errealismoa emateko. Izenak eta etiketak jartzen diezkegu gauzei, izena duenak izana duelako eta existitzen den guztiak ez duelako zergati bat behar.

Existitzen dena, gizonak edo naturak asmatu duelako da. Eta gizonak edo naturak asmatu badu, beharrezkoa delako da. Naturak ura, oxigenoa eta landareak sortu ditu. Oxigenoa ematen diguten landareak, bizia ematen diguten landareak. Ironikoa landareak hiltzen gabiltzala, ez? Ironikoa pixkanaka gure bizia amaitzea. Bizitzaren ironiak.

Denborarekin ikasi dut irribarre guztiak ez direla benetakoak eta maite zaitut guztiak ere ez direla zintzoak. Min ematen duena ez dela esan den gezurra, estali den egia baizik. Lagunik minenak ezezagun bihur daitezkeela eta maite zintuzten haiek, agian, orain gorroto zaituztela. Bizitza zuria edo beltza dela, inoiz ez arrosa edo urdina. Ipuinek beti ez dauzkatela amaiera politikak ikasi dut, amaiera polit bat bukatu gabeko istorio bat dela. Momentu onenak gauza txikiz osaturikoak direla ikasten da, distira duen guztia ez dela urrea eta abisatzen duena ez dela traidorea. Hobe dela benetako hiru lagun izatea, ehun ezagun baino. Maitasuna oso polita izan daitekeela, baina aldi berean oso traidorea. Bizitza laburra dela ikasi dut, denbora azkar pasatzen dela, azkar denontzat. Denborak ez duela barkatzen, eta aurrera daramana ez dela itzultzen; ez dudala hil nahi. Mundu hau oso aldrebasa dela ohartu naiz. Peter Panek hazi egin nahi duela, Popeyek ziazerbei alergía diela, piratak uraren beldur direla eta dragoiek suari beldurra diotela, loti ederrak insomnia duela, maitagarriak gaiztoak izan daitezkeela eta sorginak leialak. Denak buelta eman dezake, eta zure zauriak airean utzi.

Duela gutxi ulertu nuen, ez zegoela maitasun gabeko bizirik. Denok maitatu dugu noizbait, eta hori munduan dagoen sentimendurik politena da, betetzen zaituena. Maitatzea eta maitatua sentitzea. Konturatu nintzen bizia eta heriotza maiteminduta egon zirela behin, eta oraindik maiteminduta daudela. Biziak gauzak eta gizakiak sortzen ditu. Ahalik eta ondoen zaintzen ditu eta dakien guztia erakusten die. Bide batean daudela esaten die, eta hori jarraitu behar dutela. Bide horrek heriotzara eramaten gaitu. Biziak opariak ematen dizkio heriotzari, eta heriotzak betiko gordetzen ditu, denak.

\* \* \*

Bat-batean sekulako mina igartzen hasten naiz sabelean. Oihu egin nahi dut, baina heriotzari diodan errespetuak sortzen didan korapiloa igartzen dut eztarran. Ezin dut oihu egin. Mina. Larritasuna. Irentsi dut korapiloa. Baina ezin dut oihu egin. Ez dut hil nahi. Ez dut hil nahi. Ez dut hil nahi. Ez dut hi...